

URTSUKO BALADA BERRIA

Karlos ZABALA

Tximino bat, adar batean isatsetik zintzilik, ahuku ez ohizkoari begira ari zen, arretaz, oihaneko goiz urrun hartan. Txori gorri eder bat zeruratu zen, urbazterretik. Hego dirdiragarrien ustegabeko higidurak ibai mugagabe aldera bira erazi zion buru eskegia tximinoari.

Bertakoek itsasoa deitzen zuten Marañoñ ibaia nare nare zihonan, Andes-eko euriek uharrak bazekarkioten ere. Txori gorria uhertzean zeuden enbor bakarreko kanoa batzuetatik, bi txalupa haundietatik aldendu zen, indiarren etxolen artetik igaro eta, espainarren etzauntzaren gainetik hegaldaka, zuhaitz erraldoietan galdu zen. Atzetik, tximinoaren soa ere galdu zen erresuma hostotsuan.

1561eko Urteberri goiz beroan, lurrean ireki berria zuten zulo hezera hurbiltzen zen astiro ahukua.

Oihanean, jaguar azkarraren orroak urratu zuen isiltasuna. Han, sastraka, adar, aihe, erro itzelen artean tapirrak, kolibriak, anakondak, mila moetatako zomorroak esnatzen ari ziren, ikustezinak.

Tximinoaren begirada ahuku aldera itzuli zen. Aurrean, lau esklabu beltz tzarrek gizonaren gorpua zeramaten sorbaldan; atzean, inguratu eta zeremoniarik gabe guda-jantzidun hilotza sartu zuten beltzek. Inesek, zutik, zenbait errezu xuxurlatzen zituen bitartean. Gero, hildakoa basoko lur bustiaz estaltzeari lotu ziren.

Alboko etzauntzatik ez zen soinurik iristen; arkabuzak, sutautsupelak, oihanean bidea ebakitzeko arpak gordetzen zituen txabolaren aurreko zaindaria lo zegoen, beste txabola batean Urtsuko Pedroren hiltzaileak zeuden antzera, lokamutsik gabeko loan. Indiarrek, isilean, ehizarako prestatzen ari ziren.

Lana bukatu zutenean esklabuak joan egin ziren eta Inesek, belauniko jarririk, lur soltean sartu zuen gurutzea, eta ondoko arbola baten zainean eseri zen. Eta han izan zen luzaro; maitalearen gaueko hitzez oroitzen ari zen, zer egin jakin gabean.

Pedro ez zitzaion betiko istorioez mintzatu aurreko arratsean. Ez zion berriz kontatu "muzo" indiarrek gaintu zituenekoa, ezta Panamako matxinada zapaldu zuenekoa; ez zion esan Eldorado aurkitzeko asmoa aspalditik zuela, eta urrezko hirian sartzea noizpait lortuko zuela, ez, ez zion hortaz hitzegin, eta maitasun hitzik ere ez zun Inesek entzun, bestetan bezala.

Hil nahi ote zuten susmatzen hasia zen aspalditxo Urtsuko Pedro, eta sabelean ezpata sentitu aurretiko egunean Ines jakinaren gainean jartzea erabaki zuen. Ines ere kezkatu zegoen, baina ez zion esan gizonari. Eta gizonak ume garaiko oroitzapenak kontatzeari eman zionean, kezkatuago zen mulata polita.

Baztan izeneko ibar arront urruti batean, haren gurasoen jauregi ederrean barrena lehen pausoak eman zituela esan zion, eta hango basoetan lehen abenturekin amets egiten zuela.

Eta Bidasoa zeritzan ibai txiki batean igeri egiten irakatsi ziola Ameriketarako bidaian lagunduko zuen osabak; eta gazte sasoiaren neska ilehori bat bazegola, handik ez mugitzeko erregutu ziona, kontatu zion, horretaz inoiz hitzik entzuna ez zuen maitale beltzaranari. Berak, ordea, osabaren liburetan edan egiten zuen aberastasun desiraren pozoina.

Eta horrelaxe segitu zuen, iragandako denboretan, berriz ikusiko ez zituen lekuetan bere burua ordurako isladatzen ez zuen mutil gazte bati gertaturikoez mintzatzan zelarik.

Inesek, haren lurraren aldamenean eseririk, bezperako solasa zuen gogoan, eta txabolara -eta bizitzara- itzuli baino lehen, omenaldi gisa edo, Pedrok kantatu ohi zituen bertso batzuk zabaldu zituen Amazoniako zabalune galdu hartan, ahots finez, berak ezagutzen ez zuen herri batentzat kanta maitagarria zela inondik ere jakin ahal izan gabe.

Urtsuan zazpi leiho
zazpiak lerro lerro
Pedro seme zaharra
urrun defuntua dago.

Urrun defuntua
Inesek kausitua
adios erran gabe
etxetik partitua.

Zazpi errota ahantzi
zortzi jauregi erori
horien guzien gatik
nik bai Urtsura nahi.

